EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BIDEOKONFERENTZIA-SISTEMA INSTALATZEA BOZERAMAILEEN BATZARRAREN ARETOAN

ESP.: ELPV-2000-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Faxa: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BIDEOKONFERENTZIA-SISTEMA INSTALATZEA BOZERAMAILEEN BATZARRAREN ARETOAN

1 XEDEA 1

2 LANEN IRISMENA 1

3 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 2

4 GOGOETAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK 5

5 ESKAINTZAREN AURKEZPENA 7

6 BALORATZEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK 7

7 GEHIENEKO AURREKONTUA 9

8 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA 9

9 GAUZATZEKO BALDINTZAK 10

10 PLANOA ETA ARGAZKIAK 1

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Faxa: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1 XEDEA

COVID-19ren pandemia agertu arte, bilerak aurrez aurre egiten ziren; baina, ondoren, bilera mistoak egiteko beharra sortu da, non legebiltzarkide batzuk aurrez aurre joaten diren, baina beste batzuek bideokonferentzia bidez parte hartzen dute. Jada ikus-entzunezko sistemak dauzkaten batzorde-aretoetan behin-behineko hainbat irtenbide hartu dira, bilerak deitu eta Zoom plataformaren bidez bilerak egin ahal izateko, interprete eta guzti.

Eusko Legebiltzarrak bideokonferentzia-azpiegitura bat gehitu nahi du Bozeramaileen Batzarraren aretoan, bilerak egin ahal izateko plataforma ohikoenen bidez, Zoom-en azken bertsioa barne dela, interprete eta guzti.

Areto horretan dagoen eztabaida-sistemaren ordez, duela gutxi batzorde-aretoetatik kendu den beste bat ipini nahi da. Hain zuzen ere, bideokonferentzietarako azpiegitura horretan sartu nahi da sistema hori, hizlariari kamera-sistemaren bidez jarraipena egitea errazten baitu.

2 LANEN IRISMENA

Bozeramaileen Batzarraren aretorako bideokonferentzia-instalazio baten hornikuntza lortu nahi da, erabiltzeko prest eta funtzionatzen.

Horretarako:

1. Gaur egungo Philips CCS 800 eztabaida-sistema ezabatuko da (20 eztabaida-unitate eta interprete-postu bat), eta hondakin-kudeatzaile bati edo azken hartzaile bati bidaliko zaizkio, berrerabiltzeko.
2. Horren ordez, Eusko Legebiltzarrean eskuragarri dagoen Philips DCN 3500 sistemako ekipamendua jarriko da. Guztira, 17 eztabaida-unitate (16 mahaikide eta mahaiburu 1), unitate nagusia, interprete-unitatea eta audio-interfazea jarriko dira.
3. Gutxienez 55 "-ko tamaina duten 2 monitore ere instalatuko dira.
4. Bideokonferentziarako kamera robotizatu batzuk instalatuko dira, eztabaida-sistemaren bidez aktibatuko direnak.
5. Aurkezpenak ikusi ahal izango dira, bai aretoan bertan daudenentzat, bai bideokonferentziaren bidez sartzen direnentzat.
6. Sistemaren audioa eta bideoa konektatzeko beharrezkoak diren kableak instalatuko dira, baita beharrezko diren kable elektrikoak ere.
7. Osagai berrien agirian ezarritako berme-aldirako behar diren softwarearen eta hardwarearen lizentziak barne egongo dira.
8. Programazioa eta funtzionamendu-probak egingo dira, sistema behar bezala martxan jarri arte.
9. Hirugarren solairuan dagoen datuak banatzeko *rack*-arekin behar diren konexio gehigarriak egingo dira, aretoa zein interpretea Internetez hornitzeko (gaur egun, datu-linea libre bat dago bi esparruen artean).

10. Entxufe bikoitzeko 4 hargune instalatuko dira (gutxienez), mahaiaren erdialdean. Mahaiak konexio elektriko bat dauka, eta

Instalazio honen irismenean sartuko dira bideokonferentzia-sistemako elementu guztiak integratzeko behar diren ekipamendu eta kable guztiak.

3 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Bozeramaileen Batzarraren aretoan ikus-entzunezko sistema bat instalatu nahi da, Zoom motako plataformen bidez bilerak egin ahal izateko, interprete eta guzti.

Eranskin bat atxikitzen dugu, aretoaren neurriekin eta argazkiekin. Planoa *.dwg. formatuan ere ematen dugu.

Baldintza teknikoen agiri honetan jasotako zehaztapenak, betiere, eskatzen diren gutxienekoak dira. Merkatuan irtenbide ugari eta askotarikoak daudenez, atal honetan kontratu honen xedea osatzen duten elementuek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak zehazten dira, nahiz eta lizitatzaileek hobetu ahal izango dituzten elementu horiek.

Kontratu honen xedearen barruan sartzen da proposatzen den soluzioa inplementatzeko beharrezkoak diren hardware eta software elementu guztiak instalatzea, programatzea eta konfiguratzea.

Areto horrek Legebiltzarreko audio-sare digitalerako konexioa dauka, Dante sistemaren bidez. Aretoan sortutako audioa sisteman integratu behar da. Horretarako, bi sarrera-interfaze (jatorrizkoa eta itzulitakoa) eta bi irteera (jatorrizkoa eta itzulitakoa) daude, dagoeneko sare horretara konektatuta.

Interfazeak honako hauek dira:

- Sarrerako interfazea: DANTE audio-interfaze kodetzailea, AV-WALL-DT4i-LE modeloa.
- Irteerako interfazea: DANTE audio-deskodetzailea kanal-hautaketarekin, AV-WALL-DT4oB modeloa.

Ekipamendu eta kableatu guztiak, bai eta seinaleen sarrerak eta irteerak ere, inolako zalantzarik gabe identifikatuko dira, eta instalazioaren azken planoetan jasoko dira.

3.1 Eztabaida-sistema

Legebiltzarrak eztabaida-sistema bat dauka, Philips DN3500, batzorde-areto batetik kendu zena, egungoarekin ordezteko. Unitate hauek daude eskuragarri:

- Eztabaida-zentrala: LBB3500/10
- Media Interface Unit: LBB3508/00

- Interpreteen mahaia: LBB3520/10
- Eztabaida-unitateak: LBB 3551/15

Dauden unitateak kenduko dira, eta hondakin gisa kudeatuko dira edo berrerabiltzeko bidaliko dira. Legebiltzarrean ere bilatu ahal izango da kendutako sistemarako beste toki bat.

3.2 Kableatua

Hornitutako elementuen konexio-materialak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- HDMI konexio-kableek gutxienez 2.0 espezifikazioak beteko dituzte, 24 AWG-ko gutxieneko kalibre batekin.
- Ethernet kableatuak CAT6 izango du gutxienez.
- HDMI ekualizazioaren ezaugarriak kableatuan integratuak.

Kableatu orokorrak sistemek eskatutako kalitatea izan beharko du; modu ordenatuan instalatuta egongo da, begizta bilduta eta kable-piloak lotuta dituela, eta identifikazio-etiketa batzuekin ordenatuta, erantsitako dokumentazioan ageri diren eskemen arabera.

3.3 Pantailak

Gutxienez bi pantaila instalatuko dira bideokonferentzia eta proiekzioak ikusteko, euskarri-sistema bat barne dela.

Alboko horma luzeenetako bakoitzean pantaila bat instalatzea pentsatu da. Hala ere, lizitatzaileak egokiagotzat jotzen dituen beste aukera batzuk ere aurkeztu ahal izango ditu.

Gutxieneko ezaugarri hauek bete beharko dira:

- Gama profesionaleko monitoreak, gutxienez 4K bereizmenekoak (3840 x 2160)
- Gutxieneko neurriak: 55"
- **Gutxieneko kalifikazio energetikoa: C** (egiaztagiria aurkeztu beharko da)
- Gutxieneko bideo-sarrerak:
  - 1 DVI-1
  - 3 HDMI
  - 1 R232C
  - 1 RJ45
- Gutxieneko audio-irteera:
  - RCA
- Gutxieneko kanpo-kontrola:
  - RJ45
  - Rs232C
  - IR
- Bozgorailu integratuak.
- USB bidez eutsitako multimedia-formatuak (bideoa, irudiak, audioa…).

3.4 Kamerak

Proposatzen diren kamerek gutxieneko ezaugarri hauek izan beharko dituzte, eta eztabaida-sistemak gidatuko du haien funtzionamendua:

- Jarraipen automatikoko PTZ kamerak
- 1920 x 1080p60-ko bereizmena eta 1/2.8 "-ko sentsore bat (2.07 megapixel)
- Irteerak: SDI, HDMi 1090p60 arte eta USB 1080p30 arte
- Irteera FullHD 1080p60n, bai HDMI irteeran, bai 3G-SDI irteeran
- Aldibereko bideo-irteera HDMin eta 3G-SDIn
- Gutxieneko zooma: 12x
- Enkoadraketa automatikoa
- Argiaren eta kolorearen zuzenketa automatikoak
- Zuri-balantzea: automatikoa, eskuzkoa,
- Pan abiadura: 1.a - 60°/s – Til abiadura: 1.a - 30°/s
- Errotazio horizontala: -170° - +170°
- Kameraren 20 aurredoikuntza eta jatorrizko posizioaren botoia, gutxienez
- Bideokonferentzia-plataforma digitalekin bateragarria: Zoom, Teams, Skype, etab.

3.5 PCak

Instalatzen diren PCek enpresak proposatzen dituen elementu guztiak eta behar den softwarea kudeatzeko behar diren sarrerak eta irteerak izan beharko dituzte. Gutxienez, i5 prozesadore bat, RAM 8GB memoria eta 2 GBko txartel grafikoa dauzkaten ekipamendu batzuk instalatuko dira. Ahal dela, Intel Nuc motakoak edo antzekoak izango dira.

3.6 *Rack*-a

Rack bat instalatuko da beharrezko den hardwarea jartzeko. Hasiera batean, aretoan kokatzea aurreikusi da, interpretearen kabinaren ondoan; baina, proposatzen den soluzioaren arabera, kabinaren barruan ere instalatu ahal izango da.

3.7 Lizentziak

Ekipamenduetarako behar diren lizentziak eta, hala badagokio, haien urteko mantentze-kostuak zehaztuko dira.

Berrerabilitako ekipamenduen lizentzien urteko kostua Legebiltzarrak ordainduko du. Instalatutako ekipamendu berriek lizentzia behar badute, haien kostua proposamen honen irismenean sartuta egongo da.

4 GOGOETAK, BETEKIZUNAK ETA EPEAK

4.1 Gauzatzeko epeak

Kontratua esleitu ondoren egingo dira lanak. Eskaintzek instalazioa gauzatzeko eta entregatzeko gehieneko epearen konpromisoa ere jaso beharko dute. Inolaz ere ezingo da izan 3 hilabetetik gorakoa.

Enpresek plangintza-proposamen bat aurkeztuko dute, eta, proposamen horretan, lanak gauzatzeko aurreikusitako lanaldi-kopurua adierazi beharko dute. Zuinketa-akta sinatzean, instalazioaren entrega-data jasoko da, jardunaldi-kopuruaren edo lizitatzaileak proposamenean adierazitako dataren arabera.

Lanegun gisa aurreikusitako egunetan lan horiek erakundearen jarduerarekin bateraezinak direnean, lanak eten egin ahal izango dira jarduera jakin batek irauten duen bitartean, Legebiltzarreko lanean ahalik eta eragin txikiena izan dezan. Etenaldi horiek dokumentatu egin beharko dira, eta, haien tamainaren arabera, aurreikusitako entrega-data aldatu ahal izango dute.

4.2 Instalazioak bisitatzea

Interesa duten enpresek instalazioak bisitatu ahal izango dituzte, zalantzak argitzeko eta egungo instalazioaren berri izateko. Horretarako, jarri harremanetan Mantentze Zerbitzuarekin (telefonoa: 945004290; e-maila: mantenimendu@legebiltzarra.eus).

4.3 Prebentziozko kudeaketa

Eusko Legebiltzarrak teknikari bat izendatu ahal izango du, bere ordezkari gisa, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazio-lanak edo prebentziozko kudeaketa-lanak egin ditzan. Teknikari hori arduratuko da dokumentazioa eskatzeaz eta agiri honen xede diren obren segurtasun- eta osasun-arloko jarraipen orokorra egiteaz.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak Eusko Legebiltzarrari edo haren ordezkariari segurtasun- eta osasun-neurriak betetzen direla bermatzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko dio, eta adierazten zaizkion neurriak hartu beharko ditu.

Eskainitako prezioetan sartuta daude segurtasun- eta osasun-arloko araudia betetzeari lotutako kostuak.

4.4 Bermea

Lehiaketa honen xede den ekipamendu guztia **4 urterako** bermatuta egongo da.

Epe horretan, esleipendunak konpromisoa hartzen du Eusko Legebiltzarrarentzat kosturik gabe ordezkatzeko fabrikazio- edo instalazio-akatsei egotz dakizkiekeen funtzionamendu, operazio edo exekuzioan irregulartasunak dituzten hornitutako eta instalatutako obra-unitate bakoitzeko elementu guztiak, berrerabilitako eztabaida-sistemako osagaiak izan ezik.

Berme-aldia instalazioaren harrera-aktaren datatik aurrera hasiko da zenbatzen.

Laguntza teknikoko langileek eragindako gastu guztiak, hala nola joan-etorriak, dietak, garraioak eta aseguruak, bai eta erabili beharreko materialak ere –besteak beste, tresneria, neurketa-ekipamenduak, dokumentazioa, mantentze- eta konponketa-*stock*a eta hirugarrenen euskarria edo jarduna (fabrikatzailea edo ordezkaritza) esleipendunaren kontura izango dira, eta eskaintza ekonomikoaren barruan sartuko dira.

4.5 Instalazioa hartzeko entregatu beharreko dokumentazioa

Instalazioa amaitu eta lizitatzaileak proposatutako funtzionamendu-probak egin ondoren, instalazioaren harrera-ekitaldia egingo da.

Harrera hori eraginkorra izan dadin, esleipendunak gutxienez honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du (kopia bat paperean, eta beste bat euskarri digitalean), ordenatuta eta indexatuta:

1. Ekipamenduen deskribapena eta funtzionamendua jasotzen dituen obra-amaierako memoria, bideokonferentzia-instalazioaren erabiltzailearen eskuliburua barne dela.
2. Instalatutako ekipamenduen eskemak, non behar bezala identifikatuko baitira ekipamenduak eta banaketa-lineak (.dwg eta .pdf formatuak).
3. Egindako kanalizazioen trazaduren *as-built* planoak (.dwg eta .pdf formatuak). Legebiltzarrak lokalaren plano eguneratuak emango ditu, *.dwg formatuan.
4. Hornitutako ekipamendu bakoitzaren fitxa teknikoak eta erabiltzailearen eskuliburuak, behar bezala ordenatuta, antolatuta eta indizatuta.
5. Egindako proben protokoloa, identifikatuak, eta egindako proba horien emaitzak.
6. Datu-kableatuaren sarearen ziurtagiria.
7. Interesgarritzat jotzen dituen beste batzuk.

Aurkeztutako dokumentazioak Legebiltzarreko teknikariek eskatutako gutxienekoak betetzen ez baditu, edo dokumentazio hori osatu behar bada, esleipendunak eskatzen zaizkion aldaketak eta gehikuntzak egin beharko ditu.

Gainera, ikus-entzunezko instalazioez arduratzen den arloko teknikarientzako prestakuntza-jardunaldi bat egin beharko du, instalazioaren harrera egin aurretik.

5 ESKAINTZAREN AURKEZPENA

5.1 Balio-iritzien bidez kuantifikatzen diren irizpideak

Eskaintza ekonomikoarekin batera, **memoria tekniko** txiki bat emango da: gehienez 12 A4 orrialde, proposatutako bideokonferentzia-sistema azaltzen duena, bai eta osagaien kopurua eta deskribapena, eta **2 plano** ere, gehienez, proposamena argitu ahal izateko, honako hauek adieraziz:

- Ekipamenduen kokapena
- Diseinuan eta interkonexioan bildutako elementuetako bakoitzaren audio-, bideo- eta kontrol-sarreren/irteeren konexioen eskema.

Memorian berariaz adieraziko da zer ekipamendu behar diren eta zenbat lizentzia edo euskarri-zerbitzu ordaindu behar zaizkion urtero fabrikatzaileari.

Instalazioa gauzatzeko aurreikusten diren lanaldi guztien kopurua ere adieraziko da.

Ekipamenduei buruzko informazioa memoria teknikoaren **eranskin** gisa eman ahal izango da, behar bezala ordenatuta eta indexatuta, ekipamenduen ezaugarri teknikoak erraz aurkitzeko moduan. Eranskin horretako orrialdeak ez dira zenbatuko memoria teknikorako zehaztutako gehienekoan.

5.2 Formulak aplikatuz automatikoki baloratzen diren irizpideak

Bestalde, lizitatzaileak aurkeztutako proposamena osatzen duten elementu guztien aurrekontu banakatua aurkeztuko da, unitateko preziotan.

6 BALORATZEKO ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratazio-organoak, esleipena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen irizpen eta txosten osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Balorazioa **gehieneko 100 punturen** gainean egingo da, honako ponderazio honen arabera:

Balio-iritzien bidez ebaluatzekoak diren irizpideak: .....25 puntu
Formulak aplikatuz ebalua daitezkeen irizpideak: .....75 puntu

6.1 Balio-irizpideen bidez ebalua daitezkeen irizpideak

BIDEOKONFERENTZIA-PROPOSAMENA: 25 puntu

Proposamenak kontratu honen helburuarekiko egokitzapenaren arabera baloratuko dira, eta gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoekin **alderatuta**.

Eta lizitatzaile bakoitzak aurkezten duenaren arabera baloratuko dira, honako irizpide hauen arabera:

1) Instalazioaren osagaiak 10
2) Eragiketaren sinpletasuna 10
3) Hobekuntza gehigarriak 5

Proposamenak ebaluatuko dira kontratu honen xedera egokitzeko zehazten eta xehatzen diren moduaren arabera eta gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoekin **alderatuta**. Puntuazioak bi hamartar ere izan ditzake.

9/2017 Legearen 146.3 artikuluaren arabera, gutxieneko puntuazio-atalase gisa ezartzen da **14 puntu lortzea** eskaintza teknikoaren balorazioan (balio-iritzien bidez ebaluatzekoak diren irizpideak), eta proposamenen batek ere balio hori lortzen ez badu, lizitaziotik kanpo geratuko dira; hori dela eta, ez dira kontuan hartuko formulak aplikatuz ebaluatzekoak diren irizpideak aplikatzean.

6.2 Formulak aplikatuz automatikoki baloratzen diren irizpideak

Prezioa: 75 puntu

Eskaintza guztien preziorik baxuena hartuko da erreferentziatzat, eta puntuaziorik altuena emango zaio hari. Gainerakoak modu alderantziz proportzionalean baloratuko dira, honako formula hau aplikatuz:

$$P = R \times \frac{Min.}{Eskai.}$$

P: Lortutako puntuazioa
R: Atal honi dagokion gehienezko puntuazioa (75)
Min: Eskaintza ekonomiko txikienaren zenbatekoa
Eskai.: Baloratzen den eskaintzaren zenbatekoa

6.3 Berdinketa hausteko irizpideak

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintzaren artean berdinketa gertatuz gero, hurrenkeraren arabera honako irizpide sozial hauek aplikatuz ebatziko da, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkionak:

1) Desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena enpresa bakoitzeko plantillan, eta berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan gizarteratzeko egoeran dauden langileen kopuru handiena duena.
2) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa plantillan enpresa bakoitzean.
3) Enpresa bakoitzeko plantillan enplegatutako emakumeen ehuneko handiagoa.
4) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hausten ez bada.

Beren kargura enplegatuak dituzten langile autonomoen kasuan, langile autonomoak ere zenbatuko dira langileen zenbaketa horretan.

7 GEHIENEKO AURREKONTUA

Obrak gauzatzeko lizitazio-aurrekontua honako hau izango da:

22.000 €+ 4.620 € (BEZa) = 26.620 €

Prezio horiek gehienekoak dira eta, beraz, haiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Aurrekontuan, eskainitako elementuen aseguruak, garraioa, deskarga eta muntaketa sartuko dira, baita zerbitzutik kanpo geratzen den instalazio osoaren desmuntatze-lana eta obran sortutako hondakinen kudeaketa-gastuak ere. Halaber, instalatutako ekipamendu berrien berme-aldiko lizentziak.

Azken prezioan gastu orokorrak eta mozkin industriala, zergak, aseguruak, garraioa eta proposatutako sistemaren giltza eskurako hornikuntzarako egin beharreko lanarekin lotutako beste edozein kostu sartuko dira, bai eta zerbitzutik kanpo geratzen diren instalazioak erretiratzea ere.

Eskaintza ekonomikoak ezingo du gainditu kontrata bidez gauzatzeko kontratu honetarako ezarritako gehieneko aurrekontua: **26.620** euro (BEZa barne).

8 PRESTAZIOAREN ORDAINKETA

Obrak amaitutakoan harrera-akta egin ondoren, aurkeztutako eskaintzaren zenbatekoaren faktura aurkeztuko du esleipendunak.

Ordainketak Eusko Legebiltzarraren 2021. urteko aurrekontuaren 62301/00 partidaren kargura ordainduko dira.

Epemugak 30 egunera izango dira fakturaren datan.

9 GAUZATZEKO BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak –eta, azpikontratazioaren kasuan, azpikontratistak– lan-arloan, Gizarte Segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren legezko, erregelamenduzko eta ohiko xedapenak bete beharko ditu.

Zehazki, kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inolaz ere hura baino txikiagoa izan. Lan-istripuei dagokien guztia enpresaren erantzukizun esklusibokoa izango da.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua eskuratzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lana gauzatzeari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzen laguntzen duten neurrien iraupenean eta antolamenduan.

10 PLANOA ETA ARGAZKIAK

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

INSTALACIÓN DE SISTEMA DE VIDEOCONFERENCIA EN LA SALA DE LA JUNTA DE PORTAVOCES

EXP.: ELPV-2000-21

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS

INSTALACIÓN DE SISTEMA DE VIDEOCONFERENCIA EN LA SALA DE LA JUNTA DE PORTAVOCES

1 OBJETO 1

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS 1

3 ESPECIFICACIONES TÉCNICAS 2

4 CONSIDERACIONES, REQUISITOS Y PLAZOS 5

5 PRESENTACIÓN DE LA OFERTA 7

6 CRITERIOS DE VALORACIÓN Y DESEMPATE 7

7 PRESUPUESTO MÁXIMO 9

8 ABONO DE LA PRESTACIÓN 9

9 CONDICIONES DE EJECUCIÓN 10

10 PLANO Y FOTOGRAFÍAS 1

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria – Gasteiz

Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.legebiltzarra.eus

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

1 OBJETO

Hasta la aparición de la pandemia del COVID-19 las reuniones se realizaban de forma presencial, pero posteriormente ha surgido la necesidad de realizar reuniones mixtas en las que parlamentarios asisten de forma presencial, pero otros lo hacen a través de videoconferencia. Se han ido adoptando diversas soluciones provisionales en las salas de Comisiones que ya disponen de sistemas audiovisuales, para poder convocar y realizar reuniones a través de la plataforma Zoom con intérprete.

Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco pretende incorporar una infraestructura de videoconferencias en la sala de la Junta de Portavoces, para poder realizar reuniones a través de las plataformas más habituales, incluyendo la última versión de Zoom con intérprete.

También se pretende sustituir el sistema de debates existente en esta sala, por otro, que se ha eliminado recientemente de las salas de Comisiones e integrarlo en esta infraestructura para videoconferencias y que facilita hacer el seguimiento al hablante, mediante el sistema de cámaras.

2 ALCANCE DE LOS TRABAJOS

Se pretende el suministro llave en mano y funcionando de una instalación de video conferencia para la sala de la Junta de Portavoces. Para ello:

1. Se eliminará el actual sistema de debates Philips CCS 800 (20 unidades de debate y un puesto de intérprete) y serán enviados a un gestor de residuos o a un destinatario final para su reutilización.
2. Se sustituirá por equipamiento del sistema Philips DCN 3500 disponible en el Parlamento Vasco. Se colocarán un total de 17 unidades de debate (16 vocales y 1 presidente), la unidad central, la unidad de intérprete y el interface de audio.
3. Se instalarán, al menos, 2 monitores de un tamaño mínimo de 55”
4. Se instalarán cámaras robotizadas para videoconferencia, que se deberán accionar a través del sistema de debates.
5. Se posibilitará la visualización de presentaciones, tanto para los presentes en la sala como para los que acceden a través de la videoconferencia
6. Se instalará el cableado necesario para conectar audio y video del sistema, así como el cableado eléctrico necesario.
7. Se incluirán las licencias de software y hardware que sean necesarias por el período de garantía marcado en el pliego de los nuevos componentes.
8. Se realizará la programación y pruebas de funcionamiento, hasta la correcta puesta en marcha del sistema.
9. Las conexiones adicionales necesarias con el rack de distribución de datos, situados en la planta tercera para proveer de internet tanto a la sala como al intérprete. (Actualmente existe una línea de datos libre entre ambos recintos).
10. Se instalarán 4 conjuntos de tomas de enchufe dobles (mínimo), sobre la parte central de la mesa. La mesa dispone de una conexión eléctrica de la que se

Formarán parte del alcance de esta instalación todo el equipamiento y cableado necesario que permitan integrar todos los elementos del sistema de videoconferencia.

3 ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

Se pretende dotar a la Sala de la Junta de Portavoces de un sistema audiovisual, para poder celebrar reuniones a través de plataformas tipo Zoom con intérprete.

Se adjunta un anexo con las dimensiones y fotografías de la sala. También se facilita el plano en formato *.dwg.

Las especificaciones recogidas en este Pliego de prescripciones técnicas se entienden como las mínimas exigibles. Dado que son múltiples y muy diversas las soluciones existentes en el mercado, en este apartado se especifican los requisitos mínimos que deberán cumplir los elementos que forman parte del objeto de este contrato, si bien los mismos podrán ser mejorados por los licitadores.

Se incluye dentro del objeto de este contrato la instalación, programación y configuración de todos los elementos hardware y software necesarios para la implementación de la solución que se proponga.

La sala dispone de una conexión a la red digital de audio del Parlamento, mediante sistema Dante. El audio generado en la sala se debe integrar al sistema. Para ello se dispone de dos interface de entrada (original y traducido), y dos salidas (original y traducido), ya conectados a dicha red.

Los interfaces son los siguientes:

- Interfaz de entrada: Interfaz codificador de audio DANTE, modelo AV-WALL-DT4i-LE.
- Interfaz de salida: Decodificador de audio DANTE con selección de canales, modelo AV-WALL-DT4oB.

Todos los equipos y cableados así como las entradas y salidas de señales se identificarán inequívocamente y se reflejará en los planos finales de la instalación.

3.1 Sistema de debates

El Parlamento dispone de un sistema de debates, Philips DN3500 retirado de una sala de comisiones, para sustituirlo por el actual. Las unidades disponibles son las siguientes:

- Central de debates: LBB3500/10
- Media Interface Unit: LBB3508/00
- Pupitre de intérprete: LBB3520/10
- Unidades de debate: LBB 3551/15



Se retirarán las unidades existentes y serán gestionadas como residuo o destinadas a su reutilización. En Parlamento también podrá buscar un destino para el sistema retirado.

3.2 Cableado

El material de conexión de los distintos elementos suministrados debe cumplir los siguientes requisitos:

- El cableado de conexión HDMI cumplirá, como mínimo, las especificaciones 2.0, con un calibre mínimo de 24 AWG.
- El cableado Ethernet tendrá como mínimo CAT6.
- Características de Ecualización HDMI integradas en el cableado.

El cableado general deberá tener la calidad requerida por los distintos sistemas, quedará instalado de forma ordenada con los bucles recogidos y los mazos de cables atados, y ordenado con etiquetas identificativas según los esquemas de la documentación que se adjunte.

3.3 Pantallas

Se instalarán un mínimo de 2 Pantallas para la visualización de la videoconferencia y las proyecciones, incluyendo sistema de soporte.

Se ha pensado en instalar una pantalla en cada una de las paredes laterales de mayor longitud. No obstante la licitadora podrá presentar otras alternativas que considere más adecuadas.

Las características mínimas requeridas serán las siguientes:

- Monitores de gama profesional con resolución mínima 4K (3840x2160)
- Dimensiones mínimas: 55"
- **Calificación energética mínima: C** (deberá aportarse justificante)
- Entradas de video mínimas:
    - 1 DVI-1
    - 3 HDMI
    - 1 R232C
    - 1 RJ45
- Salida de audio mínimas:
    - RCA
- Control externo mínimo:
    - RJ45
    - Rs232C
    - IR
- Altavoces integrados.
- Formatos multimedia (video, imágenes, audio…) soportados a través de USB

3.4 Cámaras

Las cámaras que se propongan deberán tener las siguientes características mínimas y su funcionamiento estará guiado por el sistema de debates:

- Cámaras PTZ de seguimiento automático
- Resolución de 1920 x 1080p60 y un sensor de 1/2.8" (2.07 megapíxeles)
- Salidas: SDI, HDMi hasta 1090p60 y USB hasta 1080p30
- Salida en FullHD 1080p60 tanto en la salida de HDMI como en la de 3G-SDI
- Salida de vídeo simultánea en HDMI y 3G-SDI
- Zoom mínimo: 12x
- Encuadre automático
- Corrección de luz y color automáticos
- Balance de Blancos: Automático, manual,
- Velocidad Pan: 1° - 60°/s - Velocidad Til: 1° - 30°/s
- Rotación Horizontal: -170° - +170°
- Al menos 20 pre-ajustes de cámara y botón de posición original
- Compatible con las plataformas digitales de videoconferencia: Zoom, Teams, Skype, etc.

3.5 PC´s

Los PC´s que se instalen deberán tener las entradas y salidas necesarias para gestionar todos los elementos que la empresa proponga, así como el software necesario. Como mínimo se instalarán equipos que cuenten con, al menos, un procesador i5, memoria RAM 8GB y tarjeta gráfica de 2 GB. Preferiblemente serán del tipo Intel Nuc o similar.

3.6 Rack

Se colocará un rack para colocar el hardware necesario. En principio se ha previsto que se ubique en la sala, junto a la cabina del intérprete, pero en función de la solución que se proponga podría instalarse en el interior de la cabina.

3.7 Licencias

Se especificarán las licencias necesarias para los equipos y en su caso, coste anual de mantenimiento.

El coste anual de las licencias de los equipos reutilizados correrá a cargo del Parlamento. En caso de que los nuevos equipos instalados requieran de licencia, su coste estará incluido en el alcance de esta propuesta.

4 CONSIDERACIONES, REQUISITOS Y PLAZOS

4.1 Plazos de ejecución

Los trabajos se realizarán una vez adjudicado el contrato. Las ofertas deberán contener el compromiso de plazo máximo de ejecución y entrega de la instalación. En ningún caso podrá ser superior a los 3 meses.

Las empresas presentarán una propuesta de planificación en la que se deberán indicar el número de jornadas previstas para la ejecución de los trabajos. En la firma del acta de replanteo quedará reflejada la fecha de entrega de la instalación, en base al número de jornadas o fecha indicada por la licitadora en su propuesta.

Cuando en los días previstos como laborables los trabajos puedan resultar incompatibles con la actividad de la institución podrán ser interrumpidos mientras dura una determinada actividad con el objetivo de que la afección en el trabajo parlamentario sea mínima. Estas interrupciones se documentarán y podrán modificar, en función de su entidad, la fecha prevista de entrega.

4.2 Visita a las instalaciones

Las empresas interesadas podrán visitar las instalaciones para aclarar dudas y conocer la instalación actual. Para ello deberán contactar con el Servicio de Mantenimiento de la Cámara, Teléfono 945004290, e-mail: mantenimendu@legebiltzarra.eus

4.3 Gestión preventiva

El Parlamento Vasco podrá nombrar un técnico que, en su representación, realice las labores de coordinación de seguridad y salud o de gestión preventiva, y que será el encargado de requerir la documentación y realizar el seguimiento general de la seguridad y salud de las obras objeto de este pliego.

En cualquier caso, la adjudicataria deberá facilitar al Parlamento Vasco, o a su representante, la información necesaria para garantizar el cumplimiento de las medidas de seguridad y salud, y deberá adoptar las medidas que se le indiquen.

En los precios ofertados están incluidas los costes asociados al cumplimiento de la normativa de Seguridad y Salud.

4.4 Garantía

Todo el equipamiento objeto del presente concurso estará garantizada **por 4 años**.

Durante este plazo, el adjudicatario se compromete a reemplazar sin coste para el Parlamento Vasco todos aquellos elementos de cada una de las unidades de obra suministradas e instaladas que presenten irregularidades en su funcionamiento, operación o ejecución imputables a defectos de fabricación o instalación, con la excepción de los componentes del sistema de debates reutilizados.

La garantía empezará a contar desde la fecha del acta de recepción de la instalación.

Todos los gastos derivados del personal de asistencia técnica, desde desplazamientos, dietas, portes y seguros, así como los materiales a emplear, hasta instrumentación, equipos de medidas, documentación, stock de mantenimiento y reparación, soporte o actuación de terceros (fabricante o representación) serán a cargo del adjudicatario y entrarán dentro de la oferta económica.

4.5 Documentación a entregar para la recepción de la instalación

Una vez concluida la instalación y realizadas las pruebas de funcionamiento propuestas por la licitadora se procederá a la recepción de la instalación.

Para que esta pueda ser efectiva, la adjudicataria entregará, al menos, la siguiente documentación (1 copia en papel y otra en soporte digital), de manera ordenada e indexada:

1. Memoria final de obra que recoja la descripción y funcionamiento de los equipos, incluyendo un manual de usuario de la instalación de videoconferencia.
2. Esquemas de los equipos instalados, donde se identificarán debidamente equipos y líneas de distribución (formatos dwg y pdf).
3. Planos *as-built* de los trazados de las canalizaciones realizadas (formatos dwg y pdf). El Parlamento facilitará los planos actualizados del local en formato *.dwg para ello.
4. Fichas técnicas y manuales de usuario de cada equipo suministrado, debidamente ordenado, organizado e indizado.
5. Protocolo de pruebas realizadas, identificadas, y resultado de las pruebas realizadas.
6. Certificación de la red de cableado de datos.
7. Otros que considere de interés.

En caso de que la documentación presentada no cumpla con los mínimos requeridos por los técnicos del Parlamento, o deba ser completada, la adjudicataria deberá realizar las modificaciones y ampliaciones que se le soliciten.

Además deberá realizar una jornada de formación a los técnicos del área encargada de las instalaciones audiovisuales, previa a la recepción de la instalación.

5 PRESENTACIÓN DE LA OFERTA

5.1 Criterios cuya cuantificación depende de un juicio de valor

Junto con la oferta económica se entregará una pequeña **memoria técnica**: máximo 12 páginas A4 donde se explique el sistema de videoconferencia propuesto, así como el número y descripción de los componentes y **2 planos,** máximo, que permitan aclarar la propuesta donde se indique:

- ubicación de los equipos
- esquema con el conexionado de entradas/salidas audio, vídeo y control de cada uno de los elementos incluidos en el diseño y su interconexión.

En la memoria se indicarán expresamente qué equipos necesitan y el número total de licencias o servicio de soporte a abonar anualmente al fabricante.

También se indicará el número total de jornadas laborales previstas para la ejecución de la instalación.

La información de los equipos se podrá entregar como un **anexo** a la memoria técnica, debidamente ordenado e indizado, de modo que sea sencillo localizar las características técnicas de los equipos. Las páginas de este anexo no contabilizan en el máximo definido para la memoria técnica.

5.2 Criterios evaluables de forma automática mediante aplicación de fórmulas

Por otra parte, se presentará un presupuesto desglosada en los precios unitarios de todos los elementos que forman la propuesta presentada por la licitadora.

6 CRITERIOS DE VALORACIÓN Y DESEMPATE

El órgano de contratación, previamente a la adjudicación, podrá recabar cuantos dictámenes e informes complementarios estime pertinentes.

La valoración se realizará sobre **100 puntos máximos**, de acuerdo a la ponderación siguiente:

Criterios evaluables mediante juicios de valor..... 25 puntos
Criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas ..... 75 puntos



6.1 Criterios evaluables mediante juicos de valor

PROPUESTA DE VIDEOCONFERENCIA: 25 puntos

Las propuestas se valorarán en relación a la adecuación al objeto de este contrato y **en comparación** con las presentadas por el resto de licitadores.

Y que se valorarán en relación a lo que presente cada licitadora, en base a los siguiente criterios:

1) Elementos que componen la instalación..... 10
2) Sencillez de operación..... 10
3) Mejoras adicionales 5

Las proposiciones se evaluarán en relación al modo en que se precisen y detallen para su adecuación al objeto de este contrato y **en comparación** con las presentadas por el resto de licitadores. La puntuación podrá contar hasta con dos decimales.

Según el artículo 146-3 de la Ley 9/2017 se establece como umbral mínimo de puntuación **alcanzar 14 puntos en la valoración** de la oferta técnica (criterios evaluables mediante juicio de valor) y en caso de que alguna de las proposiciones no alcancen dicho valor, serán excluidas de la licitación, por lo que no se tendrá en cuenta a la hora de aplicar los criterios evaluables mediante la aplicación de fórmulas.

6.2 Criterios evaluables de forma automática mediante aplicación de fórmulas

PRECIO: 75 puntos

Se tomará como referencia el precio más bajo de todas las ofertas, a la que se le otorgará la máxima puntuación. El resto se valorará de forma inversamente proporcional, aplicando la siguiente fórmula:

$$P = R \times \frac{Min.}{Ofer.}$$

P: Puntuación obtenida
R: Puntuación máxima correspondiente a este apartado (75)
Min: Importe de la oferta económica más baja
Ofer.: Importe de la oferta que se valora

6.3 Criterios de desempate

El empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

1) Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.
2) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.
3) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
4) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

En el caso de trabajadores autónomos con empleados a su cargo, en el cómputo de trabajadores se incluirán los propios trabajadores autónomos.

7 PRESUPUESTO MÁXIMO

El presupuesto de licitación para la ejecución de las obras será de:

22.000 € + 4.620 € de IVA = 26.620 €

Estos precios tienen carácter de máximos y, por tanto, las ofertas que los superen serán rechazadas.

En el presupuesto se incluirán seguros, transporte, descarga y montaje de los elementos ofertados, así como el desmontaje de la totalidad de la instalación que quede fuera de servicio y gastos de gestión de los residuos generados en la obra. También las licencias durante el plazo de garantía de los nuevos equipamientos instalados.

En el precio final se incluirán los gastos generales y el beneficio industrial, los impuestos, los seguros, el transporte y cualquier otro coste relacionado con el trabajo a ejecutar para el suministro llave en mano del sistema propuesto y la retirada de las instalaciones que queden fuera de servicio.

La oferta económica no deberá sobrepasar el presupuesto máximo de ejecución por contrata establecido para este contrato, que es: **26.620** (IVA incluido).

8 ABONO DE LA PRESTACIÓN

Una vez levantada el acta de recepción a la conclusión de las obras, el adjudicatario presentará factura por el importe de la oferta presentada.

Los pagos serán abonados con cargo a la partida 62301/00 del presupuesto del año 2021 del Parlamento Vasco.

Los vencimientos serán a 30 días f.f.

9 CONDICIONES DE EJECUCIÓN


La empresa adjudicataria, y en caso de subcontratación, el subcontratista, deberán cumplir las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en material laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.

En particular, deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel, y siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo.

En la ejecución del contrato, la empresa contratista garantizará la igualdad entre mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de las medidas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral de las personas adscritas a la ejecución.

10 PLANO Y FOTOGRAFÍAS

ARGAZKIAK ETA PLANOA: ARETOA – SALA



A



B




ARGAZKIAK – EKIPOAK - EQUIPOS








INTÉRPRETE
SALA DE JUNTA
DE PORTAVOCES
1,56
0,60
h = 2,65
h = 5,00
10,00
5,33